

MURCIO, M. (2013)

*Interpretar. De la comprensión previa a la explicación de los acontecimientos. Madril: Narcea.*

*Didattica per operazioni mentali* izenburuean hamabi liburuki argitaratu ziren 2008 eta 2009 urteetan, Italian. Bost urte geroago etorri dira bilduma osoaren gaztelaniazko itzulpena Narcea argitaletxe espainiarraren eskutik. Hain zuzen ere, orain hizpide hartuko dugun lana bilduma horretako bederatzigarren liburukia da, jatorrizko edizioan *Interpretare* izenburua duena.

Bilduma bereko gainerako liburukietan bezala, bi atal nagusi ditu liburuak: teorikoa eta praktikoa. Alderdi teorikoari dagokionez, hiru kapitulu aurkituko ditu irakurleak: pentsatzeko, konprenitzeko eta interpretatzeko. Liburuak kutsu didaktiko eta azaltzaile nabaria badu ere, ez dio muzin egiten ur sakonetan murgiltzeari. Hala, esaterako, filosofoek historian zehar aztertu duten egiaren bilaketaz aritzera ausartzen da, eta, Gadamerri segika, egiaren bilaketa, funtsean, zentzuaren bilaketa dio egileak. Era berean, berez konplexua den (Gadamerren) hermeneutikaren gaia argitasunez jorratzen du, bai eta proposatu ere mundua interpretatzea mundua aldatzea dela; proposamen ausarta bezain iradokitzailea iruditu zaigu diskurtsoaren analisisian jarduten dugunoi.

Liburuaren alderdi praktikoaari dagokionez, berriz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan gauzatutako jarduerak eta proiektuak agertzen ditu egileak (dena den, zenbait ariketa DBHko lehen ziklorako ere proposatzen dira). Eskolarako praktika horiek bateratzen dituen ildo metodologiko garbi bat dago: debate-giroa sustatuz eta entzuketa aktiboa bultzatuz ikasten dugu interpretatzen pertsonok; hitzezko interakzioen bidez garatzen dugu interpretatzeko gaitasuna, hezkuntza (bizitza) etapa edoizen delarik ere.

Hori dela bide, Murciok diosku Haur Hezkuntzatik bertatik trebatu behar direla ikasleak interpretatzeko langintzan, gero eta analisi (diskurtsibo) konplexuagoak eginez.

Arestian aipagai izan ditugun ariketek bi ardatz dituzte, eta horietako bakoitzak kapitulu bat osatzen du: «Erregelen edo errutinen kultura: puntualtasuneranzko bidea hezkuntza ikastetxe batean» eta «Eskolako bizitzak dituen ohiko ekintzen gaineko interpretazioa». Azken honen barruan, «Analogiazko ikaskuntza», «Kontrako elementu estrukturalen eta semantiko-koen ulerkuntza», «Testuen bidez interpretatzea» eta «Saiatzeko gonbita» azpikapituluak topatuko ditu irakurleak. Jarduera guztiak sekuentziaturik daude eta nahiko modu sistematikoan ageri dira.

Azkenik, «Ondorioak» izeneko kapitulu labur bat ere badakar liburuak, nahiz eta, gure iritziko, bertan dagoen guztia aurretik landutakoaren ondorio ez izan (Gadamerren ibilbidea eta harekiko hainbat printzipio ageri dira kapituluaren hasieran, esaterako). Nolanahi ere, eskolan ari diren hezitzaileentzako ekarpen interesgarria delakoan gaude, alderdi teorikotik, metodologikotik nahiz praktikotik.

*Edu Zelaieta Anta*